Osakidetza
Servicio vasco de salud

atarikoa-2.he-06-04-01-bizkaieraz

# ATARIKO PROBEA

# 2.HE

1.- *Hainbat ................ behar egiten dabe adin txikikoen zentroan.*

a) gizarte-laguntzailek
b) gizarte-laguntzaile
c) gizarte-laguntzaileak
d) gizarte-laguntzaileek

2.- *Normalean, odol-analisiak egiten goizean goiz eta ............... joan behar izaten da.*

a) hutsik
b) zabalik
c) baraurik
d) osorik

3.- *Herri horretan dagoan osasun-zentroko profesionalak ............... dabilz beharrean.*

a) hankaz gora
b) atzekoz aurrera
c) buruz behera
d) buru-belarri

4.- Zein da ZUZENA?

a) Aurten Bizkaian gertatu dabez beharreko ezbeharrik gehienak.
b) Antibiotikoek ez dabe balio daukazuna osatzeko.
c) Beharretik urten ostean kirola egiten ahalegintzen dot.
d) Kolesterola eukala jakitean jatekoa kontroletan hasi eban.

5.- *Azterketa medikoa ..............., goizean, egingo deuskue.*

a) bagila 7ean
b) bagilean 7ko
c) bagileko 7etan
d) bagilaren 7an

6.- *Elikagaiak ................, igaz 764 persona inguru intoxikau ziran.*

a) badira
b) diranetik
c) dirala-ta
d) badirala

7.- *Kalentureak buruko mina eta ................ eragingo deutsuz.*

a) hotzikarak
b) beroketak
c) luzaketak
d) zuritasunak

8.- *Ezohiko pneumoniaren eragilea zein dan jakiteko, hamahiru laborategik ................ behar egin eben.*

a) alkar
b) alkarregaz
c) alkarri
d) alkarren

9.- *Goizeko ................ inguruan A-8 autobidean kamioi batek beste bat jo dau.*

a) hamarretako
b) hamar
c) hamarretan
d) hamarrak

10.- *Gaur egun ez da ................ gatxa jakitea zerk sortzen deuskun estresa.*

a) baizen
b) hainbeste
c) hain
d) adinako

11.- *Hankak zabalduta makurtuko ..............., ez ............... lepoko minik eukiko.*

a) bazina / zeunke
b) balira / leukiez
c) balitue / litzateke
d) bazenduz / zeunkez

12.- *Eguzkitan denpora lar egiten badogu, ............... erreteko arriskua daukagu.*

a) gibela
b) azala
c) gantza
d) txistua

13.- *Hanketako odol-zirkulazinoa hobetzeko, ona da bedarretan ortozik ...............*

a) ibilten.
b) ibiltea.
c) ibilteko.
d) ibili.

14.- Zein agur erabiliko zeunke ospitaleko zuzendariari bialdutako gutunean?

a) Aspaldiko!
b) Egun on!
c) Zelan zuzendari?
d) Jaun/Andra hori:

15.- *Zu, tripako mina daukat. Hesteetako minbizia izan ...............?*

a) leiteke
b) leitekez
c) neiz
d) leiez

16.- *Gastroenteritisaren arrisku nagusia deshidratazinoa da, bai ............... egiteagaitik, bai beherakoa eukiteagaitik.*

a) botaka
b) hanka
c) eztul
d) gainezka

17.- *Lo egin ezinda luzaroan ..............., komenidu da espezialista batengana joatea.*

a) egon arren
b) egon ezeze
c) egon ezkero
d) egon baino

18.- *Malariari ..............., ez dagoala tratamentu egokirik adierazo dabe gobernuz kanpoko erakundeek.*

a) argi ibilteko
b) min hartzeko
c) aurre egiteko
d) kale egiteko

19.- *Beste barik, laster ............... barri eukiko dodalakoan, adeitasun osoz agurtzen zaituet.*

a) zuek
b) zuen
c) zuekaz
d) zuentzat

20.- *Medikuak gaixoari hauxe agindu eutsan:*
*— ...............*

a) Jan eizula gitxiago!
b) Goaz ondoko gelara!
c) Janari koipetsua be ez jatea!
d) Itxi erreteari!

21.- Jarraitu alkarrizketea:
*— Nasai, ez daukazu ezer larririk, gripea bakarrik!*
— ...............

a) Doluminak!
b) Eskerrak!
c) Gorantziak!
d) Ez horregaitik!

22.- *Ume hiperaktiboek adi egoteko arazoak euki ............... ditue.*

a) antza
b) ala
c) ete
d) ohi

23.- *45 urtetik gorako andrazkoen erdiek osteoporosiak eragindako hazurren ............... eukiteko arriskua daukie.*

a) hausturea
b) zorabioa
c) erredurea
d) loditasuna

24.- *............... ikasleek pisu lar eroaten dabe lepoan.*

a) Orokorrean, behar dan pisua baino
b) Ikasleek motxilan eroaten daben pisuaren gaineko
c) Egunero, etxetik eskolara eta eskolatik etxera
d) Eskoletako gurasoen alkarteek garrantzitsutzat joten dabe

25.- *Adituen arabera, gero eta erretzaile ............... dagoz.*

a) ugarien
b) gehiegi
c) asko
d) gehiago

26.- *Herritarrek ..............., herriko medikuak ............... aurkitzen zituan sendabelarrak erabilten.*

a) inoenez / baekian
b) eukanez / baeroian
c) joianez / baeukazan
d) egozanez / baetorren

27.- *Edari alkoholdunak edateagaitik hurrengo egunean eukiten dogun ............... kentzea gatxa izaten da.*

a) koska
b) ariketea
c) ajea
d) konortea

28.- *Pelotaria ............... osatuta dago eta domekan Tolosan jokatuko dau.*

a) zati bat
b) guztiz
c) bape
d) edozein

29.- *Adituen arabera, oraingoz gure herrialdean ez dago hegaztien griperik; beraz, ez dago kutsatzeko arriskurik be*. Zein da esaldi horren PAREKOA?

a) Adituek esan dabenez, gure herrialdean hegaztien gripea egoteko arriskua ez da handia, baina bai kutsatzeko arriskua.
b) Adituek dinoenez, gure herrialdean oraingoz ez da ezagutu hegaztien gripe-kasurik; hori dala-ta, ez dago inor kutsatzeko arriskurik.
c) Adituek gure herrialdean hegaztien gripea kutsatzeko arriskurik ez dagoala esan dabe, nahiz eta orain arte hegaztien gripe-kasu batzuk egon.
d) Adituek esan dabe orain arte gure herrialdean hegaztien griperik ez dala egon, baina kutsatzeko arriskuan gagozala.

30.- Zein da ZUZENA?

a) Batzuek ez dau gura izaten medikuarenera joan.
b) Jentea gaztea diranean, normalean ez dabe osasun-arazo larririk eukiten.
c) Alaba bi daukadaz eta denpora gitxi-gitxiko aldea daukie.
d) Autoak aparkau dabe erdian eta ezin da anbulantzia pasau.

31.- *Zientzialari batzuen esanetan, elikagai transgenikoek gaixotasunak osatzeko ............... barriak eskaini leiez.*

a) sinadura
b) izenburu
c) baliabide
d) garrantzi

32.- Jarraitu alkarrizketea:
*— Zenbat ordu lo egiten dozu egunean?*
*— ...............*

a) Hiru ordu besterik ez dot egiten.
b) Besterik hiru ordu ez dot egiten.
c) Hiru ordu ez egiten besterik dot.
d) Hiru besterik ordu ez dot egiten.

33.- *Piercing-a egin baino lehenago, tetanosaren kontrako ............... ipintea komenidu jatzu.*

a) txertoa
b) desorekea
c) lehengaia
d) egoerea

34.- *Etxeko istripu-mota desbardinen gaineko informazinoa jasoten badogu, horreetako askori aurrea hartu geinkioe*. Zein da esaldi horren PAREKOA?

a) Etxeko istripuak mota askotakoak dira eta informazinoa euki arren, bardin-bardin gertatzen dira.
b) Etxean euki geinkezan istripuei buruzko informazinoa jasoten badogu, gitxiago gertatuko dira.
c) Etxeko istripuak gertatu aurretik, askok mota desbardinetako informazinoa jasoten dabe.
d) Etxean istripu-mota asko eukiten doguzanez, istripuei aurrea hartzea ezinezkoa izaten da.

35.- *Gogorarazo gura ............... zuen datuak konfidentzialtasun osoz erabiliko doguzala.*

a) jatzuez
b) dira
c) zarie
d) deutsuegu

36.- Zein da gorputz-atala?

a) Zotina
b) Zauria
c) Emagina
d) Mokorra

37.- *Ume ziztrinok! Hamaika bider esan deutsuet itxarongelan isilik eta geldi ................*

a) egon.
b) egotea.
c) egoteko.
d) egoten.

38.- *Erizainak apur baten itxaron behar dodala eta osagilea bost minutu barru ................ esan deust.*

a) etorri dala
b) etorriko dala
c) etorten leitekela
d) etorten dabilela

39.- *Gaixoak ez eban ulertzen medikuak zergaitik agindu ................ handik hiru hilabetera barriro joateko*.

a) eutsan
b) eutsala
c) eutsanik
d) eutsana

40.- *Beharginei zortziretatik hiruretara luze egiten jake lanaldia; ................, hamar minutuko deskantsua hartzen dabe.*

a) ostera
b) be bai
c) osterantzean
d) horregaitik

41.- Zelan eskatuko zeunskio beharreko lagun bati txandea aldatzeko?

a) Zapatuan ezin izango dot beharrik egin, aldatuko deustazu txandea?
b) Zu, zapatuan txandea aldatuko deustazula?
c) Zu, zapatuan txandea aldatu dozula derrigorrez.
d) Esanak esan, zapatuan etorriko zintzatekez eta kitu.

42.- *Derrigorrezkoa ............... ordenagailua erabilten daben beharginek ordu birik behin bost minutuko deskantsua hartzeari.*

a) jagoku
b) deritxagu
c) daroagu
d) dinogu

43.- *Ospitalean dagoan bitartean, umeak gurasoakaz edo ............... ordez datozan personakaz egoteko eskubidea dauka*.

a) gurasoetako
b) gurasoei
c) gurasoak
d) gurasoen

44.- *Bisitan joan ............... guztiek eroan ............... zeozer: lorak, karameluak, liburuak...*

a) ziran / eutsan
b) eben / eutsezan
c) jakozan / eutsien
d) eutsiezan / eben

45.- Jarraitu alkarrizketea:
— *Etxerantz Andonigaz joango zara, ezta?*
— ...............

a) Andonigaz? Zoratuta nagoala be!
b) Andonigaz? Zoratzetik be!
c) Andonigaz? Ezta zoratuta be ez!
d) Andonigaz? Ezta zoratuta be!

**ORDEZKO GALDERAK**

46.- *Herbehereetan, 2001. urtetik aurrera, gaixoak ................ eskatu behar deutso medikuari eutanasia egiteko.*

a) berbera
b) berak
c) bardinak
d) berea

47.- *Barre egindakoan, gorputza nasaitu egiten da*. Zein da azpimarratutakoaren PAREKOA?

a) Barre egin baino lehenago
b) Barre egin eta gero
c) Barre egin arte
d) Barre egiten dan guztietan

48.- *Futbol-jokalariak ospitalean emon dau gaua eta astelehenean ................ egingo deutsie hankan.*

a) kutsadurea
b) larrialdia
c) ebakuntzea
d) aurkibidea

Osakidetza
Servicio vasco de salud

# ATARIKO PROBEA - 2.HE

## ERANTZUN ZUZENEN ORRIA

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. | A | 2. | C | 3. | D | 4. | B | 5. | D |
| 6. | C | 7. | A | 8. | B | 9. | D | 10. | C |
| 11. | A | 12. | B | 13. | B | 14. | D | 15. | A |
| 16. | A | 17. | C | 18. | C | 19. | B | 20. | D |
| 21. | B | 22. | D | 23. | A | 24. | C | 25. | D |
| 26. | A | 27. | C | 28. | B | 29. | B | 30. | C |
| 31. | C | 32. | A | 33. | A | 34. | B | 35. | D |
| 36. | D | 37. | C | 38. | B | 39. | A | 40. | D |
| 41. | A | 42. | B | 43. | D | 44. | C | 45. | D |

**ORDEZKO GALDERAK**

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 46. | B | 47. | B | 48. | C |